

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektuak lagunak erraz aurkitzeko aukera ematen duen erloju itxurako pultsera eskaintzen du, jende pilaketa handia dagoen egoeretan, hala nola herritako jaietan, kontzertuetan edo ekitaldi jendetsuetan. Proiektuak gazteen artean oso ohikoa den arazo bati erantzuten dio: taldean galduta geratzea eta horrek sortzen duen segurtasun falta.

Pultsera honen bidez, talde bereko lagunak modu errazean lokaliza daitezke, eta horrek segurtasuna handitzen du, estresa murrizten du eta arrisku-egoerak saihesten laguntzen du. Horrela, erabiltzaileek ekitaldia lasaiago eta konfiantza handiagoarekin gozatu dezakete.

Gure proiektua gazteen segurtasunean jartzen duen arreta bereziaren ondorioz beste aukeretatik bereizten da, erabilera errazagatik eta diseinu eroso eta diskretuagatik. Gainera, bereziki lagun-taldeentzat pentsatuta dago, eta horrek pertsonalizazioa ematen dio.

Eskaintzen dugun balioa batez ere kualitatiboa da: segurtasuna, arriskuen murrizketa, diseinu erakargarria eta prezio eskuragarria nabarmentzen dira. Horregatik, bezeroak prest egongo dira lasaitasuna eta konfiantza eskaintzen dien produktu baten truke ordaintzeko.

Proiektuaren ideia da lokalizazio-teknologia pultsera batean erabiltzea. Eskumuturrekoa aisialdian dauden gazteentzat pentsatuta dago, gaur egun ez dagoelako haientzat egindako irtenbide erraz eta eskuragarriak.